

150. FITXA ARABA – 2025ean gazteentzako jarduerak egiten dituzten toki erakundeentzako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko udalak, Vitoria-Gasteizko Udala izan ezik, kuadrillak eta kontzejuak.

Sarbide-esteka: [Arabako Foru Aldundiaren Egoitza elektronikoa – egoitza \(araba.eus\)](http://araba.eus)

Erreferentziazko araudia: [2025eko dirulaguntzetarako deialdia, gazteentzako jarduerak egiten dituzten toki erakundeentzako](#)

Eremuak: Gazteria

Zenbatekoa: 55.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/24

Laburpena

Gazteekin egiten diren proiektuak finantzatzea, tokiko erakundeek beren herrietako gazteek **astialdiko hezkuntzaren** eta **gazteen parte-hartzearen** arloan dituzten **beharrizanak betetzeko zerbitzuak edo programak** sustatzeko aukera izan dezaten.

Dinamizatzaile eta begirale taldeak ezinbestekoak dira lan pedagogiko hori egiteko eta beharrezko eragileak dira jarduera horiek ongi garatzeko.

Dirulaguntzen ondorioetarako, gaztetzat hartuko dira programa horietan parte hartzen duten eta 7 eta 30 urte bitartekoa adina duten pertsonak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- Animazio sozio-kulturala.
- Aisialdia eta denbora librearen berariaz gazteei zuzendutako ekipamendu ludiko-kulturaletan eta natura ingurunean edo espazio irekietan.
- Gazteentzako informazioa, gazte informaziorako tokiko sareak.
- Gazteek herriko gizarte eta kultura bizitzan parte-hartze aktiboa izan dezaten eta konpromisoa har dezaten sustatzea, gazteen parte-hartzerako tokiko sareak.

Antolatzen diren jarduerak **berdintasunezkoak** izan beharko dute, eta ez dute baztertuko inola ere,

inolako arrazoiengatik, helburu duten tokiko gazte kolektiboaren parte jakin bat.

Puntuazio handiagoa izango dute lehenengo aldiz egiten diren programa edo ekintzek, lehenago inoiz ere egin ez direnek.

Jardueraren monitore gisa kontratatutako pertsonetako batek gutxienez izan beharko du haurren eta gazteen aisialdiko jardueren begirale titulu ofiziala edo baliokidea.

Gastuetarako aldi hautagarria

Jarduerak **2025. urtean zehar etengabe** egingo dira. Ildo horretan, urteko programazioa aurkeztuko da, jarduketa-proiektu globalaren arabera, eta gutxienez hilean jarduera presentzial edo erdipresentzial bat izan beharko du, gutxienez sei hilabetez jarraian.

Laguntzen zenbatekoa

Gazteriaren Foru Erakundeak proiektu horietarako emango duen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da izango, inola ere, diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren **ehuneko 50** baino handiagoa.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero **200 eurotara** heltzen ez diren eskaerek.